

# Koiuntura di-da batean

2018ko azaroa

## Aurkibidea

1. Hazkundera EAEn
2. Inflazioa
3. Konfiantza
4. Hazkundera ingurunean
5. Nazioarteko merkataritza
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

### 1. EAEko ekonomiaren moteltze arina baieztatu da.

Hala ere, enplegu sorrera oraindik %2,0ko tasetan hazten ari da.

### 2. KPIa hamarren bat jaitsi da, argindarra garestitu den arren.

Azpiko inflazioak %0,9an jarraitzen du, goranzko presio-rik erakutsi gabe.

### 3. Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantzak zertxobait okerrera egin du.

Oraindik baikortasuna hautematen da fakturazioan, jardueran eta eskari berrietan.

### 4. Hazkunde ezberdinak aurtengo hirugarren hiruhilekoan.

Txinak eta Europak hazkundera apaldu dute eta AEBek, ordea, areagotu.

### 5. Nazioarteko merkataritza sendo eta maximotan dago.

Gaur eguneko salerosketen kantitatea 2005eko hasierakoa baino %53,4 handiagoa da.

### 6. Munduko hazkundearen arriskuak areagotu dira.

NDFk bi hamarrenetan murriztu du 2018rako eta 2019rako aurreikuspena.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


OGASUN ETA EKONOMIA  
SAILA  
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ECONOMÍA  
Dirección de Economía y Planificación

# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDE AURRERAPENA


## EAEko ekonomiaren moteltze arina baieztatu da

**Barne produktu gordinaren bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek kontu ekonomikoen aurrerapena, hirugarren hiruhilekoari dagokiona, argitaratu berri du. Lehen zenbatespen horren arabera, EAEko barne produktu gordina %2,6 hazi zen epealdi horretan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Orobat, 2018ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, bizitasunaren galera puntu erdi batera iristen da. Beraz, egiaztatuta geratu da EAEko ekonomia moteltzeko prozesu leun batean murgilduta dagoela. Hala ere, hazkundearen apaltze hori oso hurbil dago Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak osatu zuen taula makroekonomikoan aurreikusten zenarekin, non %2,0tik gorako urte arteko aldakuntza tasak iragartzen baitira 2018-2019 epealdi osorako.


**Barne produktu gordinaren bilakaera**  
Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

**Enpleguaren bilakaera**

Urte arteko aldakuntza tasa




Kontu ekonomikoen aurrerapenak adierazten du zerbitzuek eta eraikuntzak oraindik oso emaitza positiboak lortu dituztela, eta BPGaren moteltzea industriaren eskutik iritsi dela, aurreko hiruhilekoetan erakutsi zuen bizitasun nabarmenari eusteko gai izan ez delako. Muga zergen esparruan bota diren mehatxuek, Europako herrialde batzuetan bizi diren tentsioek eta populismoaren gorakadak industria lehiatzen den testuingurua gaiztotu dute.

Hori horrela den arren, enplegu sorrerak ia ez du nabaritu BPGaren apaltze hori eta %2,0ko urte arteko gehikuntza tasa eskuratu zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko epealdian baino hamarren bakar bat gutxiago eta 2015etik izan dituen datuetatik oso hurbil. Horri esker, azken urtebetean, EAEko ekonomiak 18.800 lanpostu garbi gehitu dizkio bere jardunari.

**Enpleguaren bilakaera**

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

# INFLAZIOA

## KPIa hamarren bat jaitsi da, argindarra garestitu den arren

**KPI indize orokorra**  
Urte arteko aldakuntza tasa



INEk argitaratu duen informazioaren arabera, EAEko KPI indizea %2,1ean kokatu zen irailean, aurreko datua baino hamarren bat beherago eta Estatuaren emaitza baino bi hamarren gutxiago. Urte arteko jaitsiera txikiaren arrazoa landu gabeko elikagaien beheranzko bilakaera da, argindarraren garestitze bizia konpentsatu zutena. Izan ere, lehenengoak abuztuko %4,3tik irailiko %3,0ra igaro ziren eta argindarraren igoera %10etik gorakoa izan da.


**KPIaren banaketa**  
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko iraila	Ekarpena
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,0</b>	<b>2,0</b>	<b>2,1</b>	<b>2,1</b>
<b>Azpiko inflazioa (%81,8)</b>	<b>0,9</b>	<b>1,1</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,0	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	-0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,4	0,6
<b>Hondar inflazioa (%18,2)</b>	<b>-4,2</b>	<b>6,5</b>	<b>7,9</b>	<b>1,4</b>
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	3,0	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	11,6	1,2

**Azpiko inflazioa**  
Urte arteko aldakuntza tasak




**Hondar inflazioa**  
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE.

### KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Azpiko inflazioak ez zuen aldaketarik izan eta %0,9an jarraitu zuen, aurreko hilekoen balioetatik oso hurbil. Horrek iradokitzen du oraindik ez dagoela presio inflaziogilerik. Aitzitik, hondar inflazioa, elikagai freskoak eta energia biltzen baititu, %7,9 hazi zen. Argindarraren eta, neurri txikiagoan, berogailutarako gasolioaren garestitzeak bereziki etxebizitza taldean (%5,6) izan zuen eragina, aurreko hilekoaren emaitzaren aldean zortzi hamarren gehitu zelako. Orobat, esanguratsua da garraio taldearen gorakada ere (%4,8), aurreko datuaren aldean jaitsi bazen ere, erregaiak aurreko urtean baino gutxiago garestitu zirelako. Portiera inflaziogilea erakusten duten beste talde batzuk edari alkoholodunak eta tabakoa (%2,7) eta komunikazioak (%2,8) dira. Kontrako zentzuan, aisia eta kultura taldea (%-1,9) 2017ko irailean baino merkeagoak ditu bere prezioak orain.

### KPIaren talde nagusiak


Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko iraila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
<b>INDIZE OROKORRA</b>	<b>2,1</b>	<b>2,3</b>	<b>2,1</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,6	1,7	2,1
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,7	2,1	4,4
Jantziak eta oinetakoak	1,2	1,0	-0,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	5,6	5,3	3,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,2	0,2	0,4
Medikuntza	0,3	0,1	0,9
Garraioa	4,8	5,0	4,4
Komunikazioak	2,8	2,6	-1,2
Aisia eta kultura	-1,9	-1,0	0,7
Hezkuntza	1,1	1,0	-3,3
Jatetxeak eta hotelak	2,1	1,9	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,9	1,0	1,4

## EKONOMIA ERAGILEEN KONFIANTZA

Kontsumitzaileen eta enpresen konfiantzak zertxobait okerrera egin du

### Familien konfiantza indizea



Laboral kutxak osatzen duen EAEko familien konfiantza indizeak zertxobait okerrera egin zuen 2018ko hirugarren hiruhilekoan eta -0,5eko balioa markatu zuen, aurreko hiruhilekoaren emaitzaren aldean 1,5 puntuko galera delarik. Hala eta guztiz ere, indizearen bilakaerak oso ibilbide laua erakusten du azken hiruhilekoetan. Ekonomia hazkundearen aurreikuspenetan egin diren beheranzko zuzenketa, ezegonkortasun politikoa, merkataritza gerren eragina eta energiaren garestitzea dira kontsumitzaileen konfiantza gutxitu duten faktoreetako batzuk.


Oraindik balio positibotan dauden arren, ekonomia orokorraren eta langabeziaren bilakaeraz dituzten igurikimenak ahuldu dira. Beste aldetik, familiaren ekonomiaren bilakaeraz eta aurrezteko ahalmenaz dituzten irizkiak balio negatibotan kokatu dira berriro.

### FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA

	2016	2017	2017			2018		
			II	III	IV	I	II	III
<b>Kontsumitzaileen konfiantza</b>	<b>-5</b>	<b>1</b>	<b>5</b>	<b>0,4</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>-0,5</b>
Ekonomia orokorra	-7	6	12	9	6	5	3	1
Familien ekonomia	-5	-5	-3	-5	-4	-6	-3	-4
Langabeziaren bilakaera	9	12	23	7	9	12	15	5
Aurrezteko ahalmena	-12	-10	-12	-9	-8	-10	-7	-5
Prezioen bilakaera	14	-17	-18	-6	-17	-24	-18	-23
Erosteko momentua	-8	-3	-3	-5	-2	-5	-11	-15
Erosketen gauzatzea	-10	-7	-8	-2	-7	-3	-6	-5

Iturria: Laboral Kutxa.

### Enpresarien konfiantza indizea



Beste aldetik, enpresen konfiantza indizeak, hori ere Laboral kutxak argitaratuta, 54,2ko balioa hartu du 2018ko laugarren hiruhilekoko inkestan. Datu horrek narriadura neurritsua ekarri du aurreko hiruhilekoetan hauteman zen baikortasunaren aldean. Oraindik 50 puntuetatik gora dagoenez, indizea hedatze eremuan kokatzen da. Halere, EAEko enpresen igurikimenak ez dira horren baikorrak ekonomiak 2018ko azken hilekoetan izango duen bilakaeraz. Fakturazioaz, jardueraz eta eskari berriez dituzten igurikimenak oraindik positiboak dira.

### Enpresarien igurikimenak. 2018ko IV hiruhilekoa




Iturria: Laboral kutxa.


## INGURUNeko HAZKUNDEA

### Hazkunde ezberdinak aurtengo hirugarren hiruhilekoan

**Txinako BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**Esportazio eta inportazioen bilakaera**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Txinako Estatistika Erakundea eta Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, Txinako ekonomia espero zena baino zertxobait gutxiago hazi zen. Hain zuzen ere, herrialde hartako BPGa %6,5 handitu zen, 2009ko lehen hiruhilekotik izan duen tasarik txikiena. Txinako agintariak inbertsioa sustatzeko konpromisoa hartu zuten arren, barne eskariak ahultasuneko irudia eskaini zuen. Halere, esportazioek ezustean hobera egin zuten (%12,1). Etorkizunari begira, moteltzea areagotuko dela aurreikusten da, esportazioek aurre egin beharko dietelako AEBetako arantzelezi eta azalera zuten herrialdeen eskari txikiagoari.

**AEBetako taula makroekonomikoa**


	2017	2017 III	2017 IV	2018 I	2018 II	2018 III
<b>BPG</b>	<b>2,5</b>	2,3	2,5	2,6	2,9	3,0
Kontsumo pribatua	<b>2,7</b>	2,4	2,7	2,4	2,6	3,0
Inbertsio pribatu gordina	<b>5,0</b>	6,8	5,0	6,2	4,6	5,3
Kontsumo eta inbertsio publikoak	<b>0,1</b>	-0,4	0,1	0,7	1,3	2,4
Esportazioak	<b>4,7</b>	2,1	4,7	4,3	5,7	3,9
Inportazioak	<b>5,4</b>	4,1	5,4	5,0	4,2	5,7

Iturria: BEA.

Kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, AEBetako ekonomiak hazkunde sendo eta biziari atxiki zion aurtengo hirugarren hiruhilekoan. Lan merkatua eta barne eskaria indartsu agertu ziren eta kanpo eskariak kendu zituen bi hamarrenak konpentsatu zituzten. Hain zuzen ere, kontsumo pribatua %3,0 handitu zen eta inbertsioa %5,3ra igo zen. Halaber, langabezia tasa %3,9 apal batean mantendu zen eta soldatak erritmo onean igo ziren berriro.




**Europar Batasuneko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eurostat .

**Euroguneko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Eurostatek ere aurtengo hirugarren hiruhilekoaren hazkundeak argitaratu ditu Europar Batasunerako eta Eurogunerako. Lehen zenbatespen horren arabera, Kontinente Zaharrak berriro gutxitu zuen bere gehikuntza erritmoa, zeren eta BPGa %1,9 hazi baitzen Europar Batasuneko multzoan, hots, aurreko emaitza baino bi hamarren gutxiago. Dagoeneko lau hiruhilekoz jarraian moteldu da hazkunde erritmoa eta bederatzi hamarren galdu ditu azken urtebetean.

Eurogunea, berriz, are gehiago bizkortu zuen moteltzeko joera hori. Zehatz-mehatz adierazita, uztailetik irailera bitartean %1,7ko urte arteko tasa jaso zuen, bigarren hiruhilekoan lortutakoa baino puntu erdi bat txikiagoa baita. Hiruhileko arteko tasetan, Europar Batasuna %0,3 hazi zen eta Eurogunea, berriz, %0,2, bi kasuetan aurreko emaitza baino bi hamarren txikiagoa direlarik.

**Espainiako BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE .


INEk argitaratu duen aurrerapenaren arabera, Espainiako ekonomia %2,5 hazi zen hirugarren hiruhilekoan, aurreko datua berdinduz. Azken urteetan ekonomiari laguntza eman dioten atzeko haizeak (petrolioaren prezio merkea, inoizko interes tasa txikiak eta euroaren balio galera) desagertu izanak azaltzen dute moteltzea. Beste aldetik, lan merkatuak bilakaera ona izan zuen, enplegua %2,5 handitu baitzen, lanaldi osoko 450.000 lanpostu baliokide sortuz.

## NAZIOARTEKO MERKATARITZA

### Nazioarteko merkataritza sendo eta maximotan dago

#### Munduko esportazioen bilakaera

Bolumen indizea. 2005T1=100




Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) arabera, aurtengo bigarren hiruhilekoan munduko esportazioak %3,2 hazi ziren bolumenean, hots, prezioen eta truke tasaren aldakuntzak kenduta. Tasa hori sendoa da oraindik eta indizea, 2005eko 100 balioaren aldean, maila gorenetan (153,4) dago. Hala eta guztiz ere, bigarren moteltze jarraitua da 2017ko amaieratik jaso zen %5,4 haren ondotik. Merkataritza alorreko tentsioen gorakada eta merkatu garrantzitsu batzuetan kreditua lortzeko baldintzak gogortu izana merkataritzaren hazkundera galgatzen hasi dira eta joera hori aurtengo gainontzeko hilekoetara ere hedatuko dela aurreikusten da. Hori dela eta, MMAk beherantz zuzendu du salgaien munduko merkataritzaren bolumenerako espero den hazkunde tasa. Kalkulu berrien arabera, 2018an munduko merkataritza %3,9 areagotuko da, apirilean iragarri zen %4,4 haren azpitik. Hala ere, oraingo aurreikuspena garai hartan adierazi zen %3,1etik %5,5era doan urkilaren barruan dago.

#### SALGAIEN MERKATARITZA BOLUMENETAN


	2016 III	2016 IV	2017 I	2017 II	2017 III	2017 IV	2018 I	2018II
<b>ESPORTAZIOAK</b>								
<b>Guztira</b>	<b>1,5</b>	<b>1,8</b>	<b>4,2</b>	<b>4,5</b>	<b>5,4</b>	<b>5,4</b>	<b>3,8</b>	<b>3,2</b>
Ipar Amerika	0,7	1,8	3,9	5,1	2,0	4,0	3,6	6,0
Hego eta Erdialdeko Amerika	-0,6	-3,8	-0,4	1,0	6,6	6,5	2,9	-0,7
Europa	0,7	1,8	3,0	3,2	4,7	4,2	2,8	2,8
Asia	3,5	3,6	8,3	6,7	7,7	6,4	4,7	3,8
Beste eskualdeak	0,2	-1,8	-2,2	2,1	4,3	8,7	5,1	0,4

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

**Salgaien esportazioak eskualdeka**  
Bolumen indizea. 2005T1=100



**Salgaien esportazioak eskualdeka**  
Bolumen indizea. 2005T1=100




Eremuka, Ipar Amerikak lortu zuen esportazioen hazkunde biziena (%6,0) aurtengo bigarren hiruhilekoan, ondoren Asia (%3,8) eta Europa (%2,8) zetozela. Hego eta Erdiko Amerikak bakarrik erakutsi zuen portaera negatiboa (%-0,7), Argentinako salmenten jaitsieragatik eta Brasileko bultzada txikiagoagatik.

Analisia Europar Batasunean fokatuta, eremutik kanpo eginiko salmentak berriro izan ziren esportazioen bultzagile nagusiak, nahiz eta eremu barruko salerosketak ere erritmo nabarmenean areagotu ziren. Halere, EB kanpoko indizea 148,5ean kokatu zen aipatu den epealdi horretan, munduko ekonomiaren esportazioek eskuratu duten 153,4tik hurbil. Aitzitik, EB barneko indizea 124,8an geratu da, oraindik munduko indizetik urrun, baina bere serie historikoaren balio altuenetan.


**EUOPAR BATASUNEN SALGAIEN ESPORTAZIOA BOLUMENEAN. Urte arteko tasak**

	2016 III	2016 IV	2017 I	2017 II	2017 III	2017 IV	2018 I	2018 II
<b>Guztira</b>	0,7	1,8	2,9	3,0	4,7	4,2	3,1	3,1
EB barne	2,5	2,2	2,2	2,4	3,8	4,3	2,8	3,0
EB kanpo	-2,4	1,2	4,0	4,0	6,3	4,0	3,6	3,4

**Salgaien inportazioak eskualdeka**  
Bolumen indizea. 2005T1=100



**Salgaien inportazioak eskualdeka**  
Bolumen indizea. 2005T1=100




## NDF-REN AURREIKUSPENAK

### Munduko hazkundearen arriskuak areagotu dira

#### Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk urriko txostenean munduko BPGaren hazkundeaz egin dituen azken aurreikuspena argitaratu du. Munduko ekonomiaren aldakuntza tasak, aurreikuspen horren arabera, %3,7an kokatu dira bai 2018an bai 2019an. Datu horiek bi hamarrenetan beheratu dute aurreko aurreikuspena, bereziki, ziurgabetasuna oro har handitu delako.


Ezgonkortasun politiko handiagoa, merkataritzako oztopo gero eta ugariagoak, moneta politiken orientazioa eta tentsio geopolitikoak dira erakunde horrek aipatzen dituen arrisku nagusietako batzuk.

### NDFren aurreikuspen ekonomikoak


	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2018	2019
<b>Munduko ekonomia</b>	<b>3,7</b>	<b>3,7</b>	<b>3,7</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,2</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>2,3</b>	<b>2,4</b>	<b>2,1</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,1</b>
AEB	2,2	2,9	2,5	0,0	-0,2
Eurogunea	2,4	2,0	1,9	-0,4	-0,1
Alemania	2,5	1,9	1,9	-0,6	-0,1
Frantzia	2,3	1,6	1,6	-0,5	-0,4
Italia	1,5	1,2	1,0	-0,3	-0,1
Espainia	3,0	2,7	2,2	-0,1	0,0
Erresuma Batua	1,7	1,4	1,5	-0,2	0,0
Japonia	1,7	1,1	0,9	-0,1	0,0
<b>Garatzen ari diren herrialdeak</b>	<b>4,7</b>	<b>4,7</b>	<b>4,7</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,4</b>
Txina	6,9	6,6	6,2	0,0	-0,2
India	6,7	7,3	7,4	-0,1	-0,4
Errusia	1,5	1,7	1,8	0,0	0,3
Brasil	1,0	1,4	2,4	-0,9	-0,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.


**Ekonomia aurreratuen BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Garapen bidean dauden ekonomien BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**AEBetako BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**Erresuma Batuko BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Ekonomia aurreratu gehienek moteltzea erakutsiko dute datorren urtean eta hazkundearen batez bestekoa duela hamarkada bat hasi zen finantza krisiaren aurrean lortu zenaren oso azpitik egongo da. Biztanleria aktiboaren gehikuntza galgatu izanak eta produktibitatearen bilakaera ahulak epe ertaineko hazkunde tasa motelagoak ekarriko dituzte.

Azaleratzen eta garatzen ari diren ekonomiek, oro har, urratsez urrats apalduko den bizitasuna erakutsiko dute. Azaleratzen ari diren eskualde batzuetan, aurreikuspenak ilunduko dira per capita hazkundera aztertzen denean. Halaber, ekonomia aurreratuetan finantzaziorako baldintzak gogortzeak merkatu horietara doazen kapital fluxuak berriro gutxitzea ekarri dezake.

**Espainiako BPGa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

## EAE-KO EKONOMIA

## Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>3,3</b>	<b>2,9</b>	<b>3,0</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>2,6</b>
Familien kontsumoa	3,3	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6	—
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,4	2,5	2,7	2,6	2,0	—
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,8	3,7	3,7	4,8	—
Barne eskaria	3,6	3,0	2,9	3,0	3,0	3,0	—
Esportazioak	1,8	4,7	5,6	6,8	6,7	2,2	—
Inportazioak	2,2	4,8	5,4	6,9	6,4	2,4	—
Lehen arloa	1,0	6,8	9,6	-2,7	-3,0	0,8	—
Industria	4,2	3,1	3,0	3,5	3,7	3,1	—
Eraikuntza	0,2	3,8	4,7	4,0	2,7	4,1	—
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,7	3,1	2,8	—
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9	—
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	—

Iturria: Eustat.

## Aurreikuspenak. 2018ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2019				2018	2019
	III	IV	I	II	III	IV		
<b>BPG</b>	<b>2,7</b>	<b>2,6</b>	<b>2,4</b>	<b>2,3</b>	<b>2,2</b>	<b>2,2</b>	<b>2,8</b>	<b>2,3</b>
Barneko azken kontsumoa	2,4	2,4	2,1	2,1	2,1	2,0	2,5	2,1
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,2	2,2	2,1	2,0	2,6	2,1
Administrazioaren kontsumoa	2,0	2,1	1,8	1,7	1,9	1,8	2,2	1,8
Kapital eraketa gordina	3,9	3,6	3,3	2,9	2,9	2,7	4,0	3,0
Barne eskariaren ekarpena	2,8	2,8	2,5	2,4	2,3	2,3	2,9	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-4,4	-7,2	-6,5	-3,8	-8,2	7,9	-3,4	-2,7
Industria	3,0	2,7	2,6	2,4	2,2	2,0	3,1	2,3
Eraikuntza	2,5	2,1	2,1	1,9	1,8	1,5	2,9	1,8
Zerbitzuak	2,8	2,8	2,6	2,5	2,5	2,3	2,8	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	2,6	2,5	2,3	2,3	2,2	2,9	2,3
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	2,5	2,4	2,2	2,2	2,0	2,0	2,7	2,1
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,4	1,4	1,2	2,0	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

## EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
BBVA	3,1	2,8	Confebask	2,9	—
Funcas	3,1	—	CEPREDE	2,6	2,6
Laboral kutxa	3,0	2,5	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,4	—

Iturria: CEPREDE (2018ko urria), BBVA (2018ko maiatza), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko uztaia), Funcas (2018ko maiatza) eta Hispalink (2018ko maiatza).

## ESPAINIAKO EKONOMIA

### Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
<b>BPG</b>	<b>3,2</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>	<b>2,5</b>
Kontsumo pribatua	2,8	2,5	2,6	2,7	3,1	2,3	2,1
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	2,0	2,6	2,4	1,9	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,9	4,8	5,8	5,2	3,9	7,7	6,3
- Aktibo finko materialak	2,7	5,1	6,0	5,6	4,0	8,5	7,2
- Eraikuntzan	1,1	4,6	5,7	4,8	5,7	7,0	5,7
- Ekipamendu ondasunetan	5,2	6,0	6,4	6,7	1,8	10,8	9,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	3,5	4,5	3,1	3,1	2,8	1,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,4	2,9	3,2	3,3	3,1	3,3	3,0
Esportazioak	5,2	5,2	5,4	4,2	3,4	2,3	0,4
Inportazioak	2,9	5,6	7,0	5,4	4,7	5,2	2,0

Iturria: INE.

### Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,6	2,3	Intermoney	2,7	2,3
Axesor	2,7	2,4	Repsol	2,6	2,1
BBVA	2,9	2,5	Santander	2,7	2,1
Bankia	2,7	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,6	2,2
CaixaBank	2,7	2,3	<b>BATEZ BESTE</b>	<b>2,7</b>	<b>2,3</b>
Cemex	2,7	2,3	Gobernua (2018-10)	2,6	2,3
CEEM-URJC	2,7	2,3	Espainiako Bankua (2018-09)	2,6	2,2
CEPREDE-UAM	2,7	2,3	Europar Batzordea (2018-07)	2,8	2,4
CEOE	2,7	2,3	NDF (2018-10)	2,7	2,2
FUNCAS	2,6	2,2	ELGE (2018-05)	2,8	2,4
ICAE-UCM	2,7	2,4	The Economist (2018-10)	2,7	2,2
IEE	2,8	2,4	Consensus Forecast (2018-10)	2,7	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

## NAZIOARTEKO EKONOMIA

### Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
AEB	1,5	2,3	2,3	2,5	2,6	2,9	3,0
Txina	6,7	6,9	6,8	6,8	6,8	6,7	6,5
Japonia	0,9	1,7	2,0	2,0	1,1	1,3	—
Kanada	1,4	3,0	3,1	3,0	2,3	1,9	—
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,8	2,6	2,3	2,1	1,9
Eurogunea	1,9	2,2	2,8	2,7	2,4	2,2	1,7
Alemania	2,2	2,2	2,7	2,8	2,0	1,9	—
Frantzia	1,2	1,8	2,7	2,8	2,2	1,7	1,5
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,7	1,3	1,2	1,3	—
Italia	0,9	1,5	1,7	1,6	1,4	1,2	0,8
Herbehereak	2,2	3,2	2,9	3,1	3,1	3,0	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

### Consensus Forecast. 2018ko urria

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,9	2,6	2,5	2,3	3,9	3,5
Japonia	1,1	1,2	0,9	1,1	2,4	2,4
Kanada	2,1	2,0	2,4	2,1	5,9	5,8
Europar Batasuna	2,0	1,8	1,9	1,8	—	—
Eurogunea	2,0	1,8	1,7	1,7	8,3	7,8
Alemania	1,9	1,7	1,9	1,9	5,2	5,0
Frantzia	1,6	1,6	2,0	1,6	8,8	8,5
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,5	2,2	4,2	4,2
Italia	1,1	1,0	1,3	1,4	10,7	10,3
Espainia	2,7	2,2	1,8	1,6	—	—
Herbehereak	2,8	2,2	1,7	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.